



XXIII. ARGAZKI-LEHIAKETAREN OINARRIAK

“ARABAKO MENDIALDEA: BIZITZEKO ETA ERAKUSTEKO LEKUA”

1.- GAIA:

Mendialdeko bizitza eta paisaiak islatzen dituzten gai libreko irudiak. Baldintza hori betetzeko, aurkeztutako argazkiek argi eta garbi adierazi beharko dute beren irudietan argazkiak egin diren lekua edo ingurua Arabako Mendialdeko Kuadrilla osatzen duten sei udalerrietako batekoa dela. Barietate handiagoa izateko, argazkiek urtaro guztietako eskualdea irudikatzea gomendatzen da.

Iradokizun gisa, argazkien gaiak ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO natura-, ondare-, kultura-, gizarte- eta arte-inguruneke edukiak, paisaiak, eraikinak, ohiturak, tradizioak, jaialdiak edo egunerokotasuna islatu ditzake.

Irudiak, besteak beste, eskualdearen turismo-sustapenerako erabili ahal izango dira 2027ko turismo-egutegian. Hura osatzen duten udalerrietan egindako obrak baino ez dira onartuko. Udalerri horiek honako hauek dira:

- Kanpezu
- Arraia-Maeztu
- Harana
- Bernedo
- Lagran
- Peñacerrada/Urizaharra

2.- PARTAIDEAK:

Nahi duten adin nagusi guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

3.- LANEN AURKEZPENA:

PARTAIDETZA:

Lehiakide bakoitzak gehienez ere 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Lanek argitaragabeak eta saritu gabeak izan beharko dute.

FORMATUA:

Kamera digital zein analogikoekin egindako argazkiak aurkeztu ahal izango dira eta lehiakideen esku geldituko da horiek formatu digitalean edo paperean aurkeztea. Jatorrizkoak zuri-beltzean edo koloretan izan daitezke. EZ dira onartuko eta, beraz, kanpoan geldituko dira lArekin sortutako argazkiak, baita teknologia hori partzialki erabili dutenek ere.

TAMAINA:

Argazki digitalak "jpg" formatu digitalean aurkeztuko dira, eta gutxienez 300 pixeleko erresoluzioa izan beharko dute hazbeteko (ppp) tamaina errealean, eta gutxienezko neurriak 24 x 16 cm-koak (2835 X 1890 px).

AURKEZPENA:

Bide hauetako baten bidez aurkeztu beharko dira lanak:

Elektronikoki

- Erregistro elektronikoaren bidez kuadrillaren egoitza birtualean.



- Mezu elektroniko bat bidaliz helbide honetara: mendialdekoargazkilehiaketa@gmail.com jasotzea baieztatuko da.

Presentzialki

- Paperezko argazkiak 24x16 cm-ko tamainakoak, edo handiagoak, izan beharko dira. Horiek, degradazioak edo tolesdurak sahiesten duten karpeta edo euskarrietan aurkeztu beharko dira, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan (Gesteiz-Lizarra kalea 7, 01110 Santikurutze Kanpezu, Araba).

GUTXIENeko DATUAK:

Obra bakoitza hurrengo zerrendan adierazitako gutxieneko datuekin batera aurkeztu beharko da:

- "Arabako Mendialdeko Kuadrillako XXII. Argazki Lehiaketa" ri erreferentzia egitea.
- Obraren izenburua.
- Argazkia aterata dagoen kokapen geografikoa (herria, parajea...)
- Argazkia egin den udalerrria
- Lehiakidearen datu pertsonalak:
- Izen-abizenak.
- NAN
- Helbidea
- Telefonoa.

BESTE BALDINTZA BATZUK:

- Pertsona berak obra bat baino gehiago aurkezten badu, lan bakoitzagatik aldezturik jasotako aurkezpen-prozedura jarraitu beharko du.
- Aurkeztutako argazkiak pertsonen lehen planoak badira edo horiek identifikatzeko aukera ematen badute, bertan erretratutako pertsonen berariazko baimena aurkeztu beharko da non argazki horien erabilera onartzen duten.
- Parte-hartzaileek ezin izango dute inoiz parte hartu argazkiak hautatzeko prozesuan, ezta epaimahaiaren ere.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar.

4.- EPEA:

Lanak onartzeko epea 2026eko irailaren 25ean amaituko da, ostirala. Edozein zalantza argitzeko, deitu 945-405424 telefonora, bulegoen ordutegian, 08:30etik 14:30era.

5.- SARIAK:

1º Saria	350 euro
2º Saria	250 euro
3º Saria	150 euro
9 akzesit	50 euro bakoitzak

*Kopuru horien gainean Legeak ezarritako PFEZ atxikipean egingo dira.

- Lehenengo hiru sariak epaimahaiak aukeratutako hiru argazki onenei emango zaie.
- Bestalde, egutegiko 9 akzesitak, banatu egingo dira saritutako argazkiekin batera egutegirako hautatutako argazkiak ezagutzeko
- Epaimahaiak argazki gehiago hautatzea erabaki dezake egutegirako edo beste helburu batzuetarako. Kasu horretan, akzesit kopurua 12 arte handitu ahal izango da.
- Sariak pertsonalak eta besterenezinak izango dira.



- Argazki berberak ezingo du sari bat baino gehiago irabazi.
- Lehiakide bakoitzak lehen hiru sariak eskuratzeko aukera izango du, era berean, argazkia egin den udalerriari dagokion accesit bakarra eskuratu ahal izango du.
- Sariak edo akzesitak eman gabe utzi ahal izango dira, epaimahaiak horrela erabakiz gero.

6.- EPAIMAHAIA, BAHEKETA ETA DELIBERAMENDUA:

- Kuadrillako langileek kudeatuko dituzte datuak eta argazkiak, eta ez dira epaimahaikide izango.
- Aldez aurretik baheketa bat egingo da, teknikariek oinarri horiek betetzen dituztela eta zein udalerritakoak diren zehaztuko dute. Horrela, aurkeztutako obrak/hautagaitzak kontuan hartzerakoan lanen anonimotasuna bermatuko da, ebaluatzen dituzten pertsonak ezin izan ditzaten obrak eta egileak lotu.
- Udalek beraien herriei dagozkien argazkiak jaso ondoren, oinarriak errespetatzen dutenak hain zuzen ere, 6 argazki aukeratuko dituzte, lehiaketaren azken fasera pasatzeko.
- Udal bakoitzak ordezkari bat izendatuko du epaimahaian jarduteko, eta Kuadrillari jakinarazi beharko dio, idatziz, horretarako izendatutako pertsona epaimahaia biltzen den eguna baino lehen.
- Udal bakoitzeko ordezkari batek eta kuadrillako presidenteak osatuko dute epaimahaia, hortaz, 7 kide izango ditu guztira.
- Epaimahaiak kalitatea eta erabilitako teknika baloratuko ditu, baita eskualdearekin duen harremana eta aukeratutako mezua ere. Sariak argazki onenei emango zaizkie, epaimahaiaren iritziz.
- Epaimahaiko zazpi kideek, zehaztu beharreko datan, 36 argazkiak ikusiko dituzte (6 Udalak) 1., 2. eta 3. sarien argazki irabazleak aukeratzeko, hurrenkera horretan, argazki edo pertsona bera sari bat baino gehiagorako hautatua izan ez dadin.
- Udalerrika soberan geratu diren argazkien artean, epaimahaiak udalerri bakoitzeko accesit sari bat aukeratuko du.
- Aurreikusi gabeko edozein kasu, lehiaketako epaimahaiak interpretatu eta ebatziko du, eta, halakorik ezean, Arabako Mendialdeko Kuadrillako presidenteak.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

7.- SARIEN BANAKETA, ERAKUSKETA ETA OBREN JABETZA:

Sari-banaketa bi hilabeteko epean egingo da, epaimahaia lanak kalifikatzeko biltzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Lehiaketan parte hartze hutsagatik parte-hartzaileek aurkeztutako argazkien egileak izatea bermatzen dute.

Aurkeztutako lanak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren jabetzakoak izango dira eta Creative Commons (CC BY-NC-SA) lizentziapean erabili eta partekatuko ditu. Azken horrek argazkiaren egiletza aintzatetsiko du eta haren erabilera komertziala mugatuko du.

Argazkiak Arabako Mendialdeko Kuadrillako sustapen-argitalpenetan, webgunean eta sare sozialetan erabili ahal izango dira.

Saritutako argazkien egileek, paperean aurkeztu badituzte, Arabako Mendialdeko Kuadrillari emango diote negatibo edo artxibo digitala, saria jakinarazi eta eman aurretik.



8.- EGUTEGIA:

Aurkeztutako argazki guztiak, saritutakoak eta saritu gabekoak, erabili ahal izango dira Kuadrillak editatutako turismo-sustapeneko egutegia egiteko, turismokoak izan zein ez.

Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egutegia argazki-lehiaketari lotutako jarduera bat da, eta, beraz, sarien sistemara eta oinarri hauen deliberaziora egokitzen da.

Saritutako argazkiak hautatzeaz arduratuko den epaimahaia izango da ekitaldi berean egutegia egiteko argazkiak aukeratuko dituen. Eskualdeko argazki adierazgarrienak aukeratzeko orduan, udalen hautaketa eta epaimahaiaren erabakia hartuko dira kontuan.

Egutegian oreka bilatuko da udalerrien ordezkaritzan, udalerri bakoitzari bi hilabete esleitzuz.

9.- DATUEN BABESA.

Datu Pertsonalen Babesa arautzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorriz, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datu pertsonalak, edo lehiaketan parte hartzeagatik sortzen diren beste edozein, ARABAKO MENDIZALE KUADRILLAREN titulartasuneko tratamendu-jardueren erregistroan sartuko direla, Vitoria-Lizarrako errepidean (7 - 01110 Santa Cruz de Campezo, Araba), eta gorde egingo direla alderdien artean ezarritako harremana mantentzen den bitartean, harik eta interesdunak datuak ezabatzea eskatzen duen arte, bai eta legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa den arte ere.

Tratamenduaren arduraduna	Araba Mendialdeko Kuadrilaa
Helburua	Lehiaketan parte hartzen dutenen datuak tratatzea, lehiaketaren berezko helburuetarako eta kudeatzeko, etorkizuneko edizioetarako, datuak berrestea eta, hala badagokio, sariak irabazleei ematea. Haren egiletza Arabako Mendialdeko Kuadrillak argitaratzen duen egutegian jasotzea, bai eta material hori inprimatzeko edota argitaratzeko ere. Argazki irabazleak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren webgunean eta sare sozialetan argitaratu ahal izango dira, turismoa sustatzeko.
Legitimazioa	Tratamenduaren oinarri legitimatzailea parte-hartzailearen adostasuna eta lehiaketaren oinarriak onartzea da. Beste pertsona baten edo batzuen datuak argitaratzen edo agerrarazten baditu, jakinarazi beharko die bere datu pertsonalak erakundeak tratatuko dituela, arestian deskribatutako helbururako. Era berean, datu horiek jakinarazteak esan nahi du beste pertsona batek edo batzuek beren datuak tratatzeko aldez aurretik baimena eman dutela.
Hartzaileak	Ez zaie bestelako jakinarazpenik egingo beste erakunde batzuei, legezko betebeharrak edo beharrianengatik gertatzen diren komunikazioak izan ezik. Ez da transferentziarik egiten hirugarren herrialdeetara edo berme egokirik eskaintzen ez duten nazioarteko erakundeetara.

**CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ALAVA)**



**ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)**

Eskubideak	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, lekualdatzeko, aurka egiteko eta errebokatzeak eskubideak balia ditzakezu, lehenago adierazitako helbidera edo gerentzia@arabakomendialdea.eus helbide elektronikora edo protecciondedatos@bketl.es (datuen babeserako ordezkaria) helbidera idatziz bidalitako eskaeraren bidez.
Datuen jatorria	Interesduna